



Andoaingo Udala

Andoaingo Udala

Zk./ Nº 2026/1801

Data / Fecha 2026/07/01

Ebazpena / Resolución

ALKATETZAREN EBAZPENA

Lurpean gordetako historia Oroituz Andoainen elkarteak 2026ko ekainaren 1ean aukezturiko dirulaguntza eskaera ikusirik, 2026. urteko bere kultur jarduerak aurrera eramateko.

Hezkuntza eta Kultura teknikariaren txostena ikusirik.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Lurpean gordetako historia Oroituz Andoainen elkartearen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

Xedea: 2026rako antolatutako kultur jarduerak.

Dirulaguntza: 2.353€.

Partida: 1.0500.481.338.00.16.2026

Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

2.- Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Lurpean gordetako historia Oroituz Andoainen elkarteari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4.- Onartutako dirukopuru honen %60a, hau da 1.411,80€ Lurpean gordetako historia Oroituz Andoainen elkarteari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

5.- Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, aipatutako elkarteak 2027ko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dituela 2026ko jardueren memoria, likidazioa eta zurigarri guztiak.

6.- Kontuan izan behar dituzte sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko direla, eta Lurpean gordetako historia Oroituz Andoainen elkarteak sinatuta egon beharko dutela. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.



Andoaingo Udala

7.- Ebazpen hau Lurpean gordetako historia Oroituz Andoainen elkarteari eta Udal Kontuhartzailletza lantsailari helaraztea.

Erabakia Udaleko idazkariaren aurrean sinatu eta bete dadin agindu dut.

Andoainen, sinaduraren datan.

Nire aurrean,

IDAZKARIA

ALKATEA

